

Biztanleri proiektzioak 2026

Emaitzen analisia

Lanketa:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística (Eustat)

Argitaraldia III-2014

Argitalpena:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.eustat.es

© **Euskal AEko Administrazioa**

Administración de la C.A. de Euskadi

Aurkibidea

1	FENOMENO DEMOGRAFIKOEN ANALISIA ETA PROIEKZIOA.....	4
1.1	Hilkortasuna.....	4
1.2	Ugalkortasuna.....	9
1.3	Migrazioak.....	17
1.3.1	<i>Etorkinen joan-etorrien joera eta proiektzioa.....</i>	<i>17</i>
1.3.2	<i>Emigrazioa Estatuko gainerako lurraldeetara eta Atzerriara.....</i>	<i>21</i>
1.3.3	<i>Lurralde Historikoen arteko barneko mugimenduak</i>	<i>24</i>
2	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETA LURRALDE HISTORIKOETAKO BIZTANLERIA 2012-2026.....	26
2.1	Biztanleria eta hazkunde demografikoaren osagaiak	26
2.2	Egitura demografikoaren eraldaketak	30

.../...

Taulen aurkibidea

1.1 taula: Bizi-itxaropena jaiotzerakoan eta 65 urteko adinean. Euskal Autonomia Erkidegoa. 1981-2011.	5
1.2 taula: UISren eta ABBAren bilakaera osoa eta jaiotzaren ordenaren arabera. EAE 1976-2012	11
1.3 taula: Ugalkortasunaren bosturteko tasen garapena. EAE: 1976-2012 (tasak milaka)	13
1.4 taula: Ugalkortasun-tasen garapena haurraren ordenaren arabera. EAE 1995 eta 2012 (tasak milaka).....	14
1.5 taula: Emigrazioaren Indize Sintetikoa sexuaren eta destinoaren arabera EAEn eta lurralde historikoetan. 2010-2012 hirurtekoa. (mila biztanleko)	23
2.1 taula: Euskal Autonomia Erkidegoko eta lurralde historikoetako biztanleriaren proiektzioa. 2013-2026. Biztanleria milakotan	27
2.2 taula: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren eta fenomeno demografikoen proiektzioa. 2013-2026	28
2.3 taula: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren proiektzioa adin-talde handien arabera. 2013-2026. (milakotan)	32
2.4 taula: Lurralde Historikoetako biztanleria, adin-talde handien arabera. 2013 eta 2026.....	33

Grafikoen aurkibidea

1.1 grafikoa: Adinek bizi-itxaropena irabazteari edo galtzeari egindako ekarpena 2000 eta 2010 artean sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa.....	6
1.2 grafikoa: Hiltzeko probabilitateak sexuaren arabera. Euskal AE 1999-2001 eta 2009-2011.....	7
1.3 grafikoa: Bizi-itxaropenaren garapena eta proiektzioa jaiotzerakoan eta 65 urteko adinean sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa: 1981-2025.....	8
1.4 grafikoa: Hiltzeko arriskuen bilakaera eta proiektzioa sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 1981-2025.....	8
1.5 grafikoa: Bizi-itxaropenaren garapena eta proiektzioa jaiotzerakoan Euskal Autonomia Erkidegoan eta Lurralde Historikoetan. 1989-2025.....	9
1.6 grafikoa: Ugalkortasunaren Indize Sintetikoaren (UIS) eta Amatasunaren Batez Besteko Adinaren (ABBA) garapena Euskal Autonomia Erkidegoan. 1976-2012	10
1.7 grafikoa: EAEko eta beste Autonomia Erkidego batzuetako UISen arteko konparaketa. 1996-2012	12
1.8 grafikoa: Ugalkortasunaren Indize Sintetikoaren (UIS) eta Amatasunaren Batez Besteko Adinaren (ABBA) garapena. Euskadi eta lurralde historikoak. 1976-2012	14
1.9 grafikoa: EAEko eta bere Lurralde Historikoetako UISren bilakaera eta proiektzioa. 1995-2025.	15
1.10 grafikoa: Ugalkortasun tasen garapena eta proiektzioa amaren bosturteko adin-taldearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 1995-2025 (tasak milaka)	16
1.11 grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoan izandako sarrerren bilakaera eta proiektzioa. 1988-2025.....	18
1.12 grafikoa: EAEn izandako immigrazioaren patroierlatiboak. 2010-2012.	19
1.13 grafikoa: Lurralde Historikoetara iritsitako etorkinen bilakaera eta proiektzioa. 1988-2025	20

1.14 grafikoa: Emigrazioaren Indize Sintetikoaren garapena sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Lurralde Historikoak. 1988-2012. (mila biztanleko).....	21
1.15 grafikoa: EAEko emigrazio-tasak, sexuaren eta destinoaren arabera. 2010-12 (tasak mila biztanleko).....	22
1.16 grafikoa: Barne Migrazioko Indize Sintetikoaren garapena eta proiektzioa sexuaren arabera Lurralde Historikoetan. 1988-2025.....	23
1.17 grafikoa: Barneko migrazioaren patroia erlatiboak sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. 2010-2012.....	24
2.1 grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren garapena eta proiektzioa. 1982-2026.....	26
2.2 grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren hazkundearen osagaien garapena eta proiektzioa. 1988-2025.....	29
2.3 grafikoa: Lurralde Historikoetako biztanleriaren hazkundearen osagaiak.....	30
2.4 grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren piramideak. 2013 eta 2026.....	31
2.5 grafikoa: Biztanleriaren bilakaera eta proiektzioa hezkuntza-zikloetan. 1976-2026.....	34
2.6 grafikoa: 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren eta haren barneko egituraren garapena eta proiektzioa. 1976-2026.....	35
2.7 grafikoa: Pertsona nagusien kopuruaren bilakaera eta proiektzioa adin-segmentuen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa 1976-2026.....	36

1 FENOMENO DEMOGRAFIKOEN ANALISIA ETA PROIEKZIOA

Hilkortasunaren, ugalkortasunaren eta migrazioen gainean berriki egindako joeren analisia da proiektzio-ariketa baten muina. Proiektzio honetan, euskal biztanleriaren etorkizuneko testuinguru bakarra eraiki da, 2026ko urtarrilaren 1a epemuga dela, fenomeno horietarako sinesgarriena gisa balioesten den garapenetik abiatuta. Fenomeno demografikoak aztertzean, etorkizuneko hipotesiak taxutzeko erabakigarritzat jotzen diren alderdiak hartu dira kontuan.

1.1 Hilkortasuna

Hilkortasunak garrantzi berria hartu du biztanleriaren proiektzioetan berriki izandako garapenari eta egungo eta etorkizuneko egitura demografikoaren gainean duen eraginari dagokionez. Batetik, adin nagusienetako biziraupenean izandako hobekuntzak izan dira bizi-itxaropenetako aurrerapen berrien oinarria eta berriz ere planteatu behar izan dira biziraupenaren berezko mugak. Bestalde, biztanleria-egituren zahartzeak ekarriko du gero eta hurbilago duen etorkizun batean pertsonakopuru handiago batek onurak izatea bizitza-luzeran izango diren aurrerapenetatik. Fenomeno demografiko horren rola gero eta garrantzitsuagoa izango da, proiektzioetako baten helburua adineko pertsonen taldeko etorkizuneko kideen eta zahartze-mailen balioespena baita, gizarte laguntzako politiketan eta osasunetako edo pentsioetarako baliabideen esleipenean besteak beste eragin handia daukatelako.

Azken hamarkadetan funtsezko hobekuntza izan da euskal biztanleriaren biziraupenean. 1981 eta 2011. urteen artean, jaiotzako bizi-itxaropenak 7,8 urteko hazkundea izan du gizonezkoen artean eta 6,6 urtekoa emakumezkoen artean. Beste modu batera esanda, egutegiko urte bakoitzeko, batez beste, gizonen bizitza 0,26 urte luzatu da eta emakumeena 0,22. Bestalde, erritmo hori ez da uniformea izan, izan ere, laurogeiko hamarkadaren erdi aldera egonkortze-etapa bat izan zen, are gehiago, baita gizonezkoen biztanlerian bizitza-urteen galerako etapa bat ere, heldu gazteenetan hiltzeko arriskuaren portaera negatiboaren ondorioz. Galera horiek gerora errekuiperatzearen eta bizitzaren zikloko beste etapa batzuetan hilkortasunak izandako bilakaera onaren eraginez, iragan mendearen amaierako batez besteko irabaziak azeleratu ziren, batez ere gizonen artean. Bestalde, adin nagusienetan hiltzeko arriskuak sintetizatzen dituen 65 urteko adineko bizi-itxaropenaren ezaugarria ehuneko

30eko portzentajetik hurbil dagoen irabazi erlatibo batekin sostengatutako hazkunde-ibilbidea izan da bi sexuetan azken hiru hamarkadetan. Bizi-itxaropenaren joera ona mantendu egin da azken epealdian, baina mende honen bigarren bosturtekoan dezelerazioa gertatu zen. Aldi berean, bizitzako urteen irabaziak gero eta adin nagusiagoetan sortzen dira, bereziki emakumezkoen kasuan.

1.1 taula. Bizi-itxaropena jaiotzerakoan eta 65 urteko adinean. Euskal Autonomia Erkidegoa. 1981-2011.


	Jaiotzean		65 urterekin	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
1981	71,3	79,1	14,2	18,3
1986	72,9	80,4	15,0	19,1
1991	72,8	81,4	15,3	19,9
1996	74,2	82,3	16,0	20,6
2001	76,4	83,9	16,7	21,6
2006	77,9	85,1	17,7	22,6
2011	79,2	85,6	18,4	23,2

Oharra: Urtebeteko epealdiari zorrozki dagozkien hilkortasun-taulak.

Horri dagokionez, euskal gizartea gaur egun trantsizio epidemiologikoko etapa batean murgilduta dago eta etapa horren ezaugarri nagusia hilkortasuna adin nagusiagoetara igarotzea da, arrazoi kroniko-degeneratiboen eta bizitzako urteen irabaziak pixkanaka adin nagusienetan kokatzearen ondorioz, heldutasunean eta nagusitasunean hiltzeko arriskuak murrizten doazen heinean (1.1. grafikoa). Emakumeak prozesu horretako estadio aurreratuago batean daude. Izan ere, azken hamar urteetan 70 urtetik gorako hilkortasunaren garapenak jaiotzako bizi-itxaropena 1,5 urte handitzen lagundu zuen, hau da, kopuru osoaren hiru laurden, eta ekarpenik handiena 80 eta 84 urte bitarteko taldearena izan zen. Adin horien garrantzia txikiagoa izan zen gizonen artean –1,3 urte–, eta ekarpenik handiena 70 urtetik 74ra arteko taldearena izan zen.

Funtsezko joera horrekin batera, beste bilakaera bik azaltzen dute zergatik izan den urteen irabazia handiagoa gizonen artean, emakumeen artean baino, eta horren ondorioz, sexuen artean batez besteko bizitza-diferentzialak urtebete murriztu ziren. Lehenengoz, gizonen artean, heldu-gazteen taldean, biziraupenaren hobekuntza-tartea handiagoa izan da. 25 eta 35 urteen arteko taldean hiltzeko arriskuen beherakadak 0,37 urte gehitu zuen gizonen bizi-itxaropena. beherakada horrek emakumeen artean izan zuen ekarpena, berriz, 0,15 urtekoa izan zen, adin horietan duten hilkortasun-tasa txikiei esker. Beste alde batetik, erdiko adinetan, 45 eta 60 urteen arteko taldean, hilkortasunak bilakaera diferentea izan du. Izan ere gizonen artean goranzko joera mantendu du, eta ia 0,4 urte gehitu ditu beren bizi-itxaropenean; emakumeen hilkortasunak ez zuen bilakaera hain positiboa izan, eta horren ondorioz ez zen irabazirik gertatu; are gehiago, bizitza-urteak galdu ziren adin-talde guztietan, adibidez 50 eta 54 urteen arteko taldean.

1.1 grafikoa: Adinek bizi-itxaropena irabazteari edo galtzeari egindako ekarpena 2000 eta 2010 artean sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa.



Oharra: hirurteko hilkortasun-taulak, erreferentzia-urteari dagokionez.


Hilkortasunaren mailak eta profilak erakusten dituzte azken hamarkadetan Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren hilkortasunaren indarrean izandako aldaketa (1.2 grafikoa). Ondorengo hauek dira alderdi nagusiak:

1. Hilkortasun-koefizienteen murrizketa-prozesua lehen adinetan, nahiz eta hiltzeko arriskuak egonkortzeko joera daukan bizitzako lehen urtean, milako 2,5-3,0 inguruko mailara iritsi baita.
2. Hilkortasunak hobera egin du adin heldu-gazteetan, bereziki gizonen artean, baina adin horietan gain-hilkortasunaren modak irauten du, baita sexuen arteko diferentzial erlatibo handiek ere. Azken hirurtekoan, 20 eta 30 urteen arteko adinean hiltzeko probabilitatea milako 5,6 izan zen gizonentzat, eta milako 1,4 emakumeentzat.
3. Hilkortasunak bilakaera txar samarragoa izan du adin ertainetan gizonen artean; aldi berean, bilakaera horren ondorioz emakumeen artean hiltzeko arriskuak egonkortu dira, eta adin horietan apurka gain-hilkortasunaren bigarren moda bat taxutu da. Joera hori gertatzeko arrazoia hau izan da: adin horietara apurka heldu diren emakumezkoen kohortek arrisku-faktoreak dakartzaten bizitza-estiloak dauzkate; bizitza-estilo horiek, adibidez tabakismoak, heriotza-kausa batzuen –esaterako biriketako minbiziaren– beheranzko joera alderantzikatu dute. Belaunaldi-ordezkapen horrek adin helduetako eta lehen adineko emakumezkoen hilkortasun-mailetan izango duen eraginak galderak sortzen ditu etorkizunera begira.
4. Lehen adin nagusietan hiltzeko arriskuen beherakada zirkulazio-aparatuaren gaixotasunengatik sorturiko hilkortasunaren kontrolaren eta minbizien prebentzioan eta tratamenduan egindako aurrerapenen ondorioz. Azken hamarkadan, 65 eta 70 urteen artean hiltzeko arriskuak ehuneko 22 inguruko murrizketa izan du gizonen artean eta ehuneko 16koa emakumeen artean; aldiz,

70 eta 75 urteen artean hiltzeko probabilitateak ehuneko 25eko murrizketa izan du bi sexuetan.

5. Adin nagusienetan hiltzeko arriskuaren beheranzko bidearen sendotasunaren eta intentsitatearen mende egongo da biztanleriaren batez besteko bizitzan aurrerapen berriak lortzea.

1.2 grafikoa: Hiltzeko probabilitateak sexuaren arabera. Euskal AE 1999-2001 eta 2009-2011.




Oharra: hirurteko hilkortasun-taulen gaineko probabilitate egokituak, erreferentzia-urtea ardatz gisa.

Hilkortasunak azken 14 urteetan sexuaren eta adinaren arabera izandako bilakaeraren estrapolazioa oinarrituta iragar daiteke 2025ean bizi-itxaropena jaiotzerakoan 82,6 urtekoa izango dela gizonentzat eta 88,4 urtekoa emakumeentzat. Horrek esan nahi du 3,4 eta 2,7 urteko gorakadak egongo direla 2011n ikusitako balioekin alderatuta (1.3 grafikoa). Emakumeen artean adin helduetan eta nagusietan hobekuntzaren geldikina txikiagoa denez, eta bestetik, hiltzeko arriskuen murrizketak biztanleriak bizi izandako urteen multzoan izandako eragina txikiagoa denez, beherakada hori sortzen den adina handitzen doan heinean, irabazi absolutua txikiagoa da gizonen artean, eta horren ondorioz, sexuen artean batez besteko bizitza-diferentzialak murrizten dira. Adin nagusienetako hilkortasunari dagokionez, aurreikusten da 65 urteko adinean geratzen diren bizi-itxaropenak %14 gora egingo dutela gizonen artean eta %10 emakumeen artean, eta 2025ean 20,9 eta 25,5 urteetara helduko direla hurrenez hurren.


Adinen araberako hilkortasunaren bilakaerari buruz inplizituki dauden suposamenduak hauek dira: a) heldu-gazteen taldean hiltzeko arriskuen beheranzko

joera mantenduko da, hau da, ez dira adin horietako arrisku espezifikoak agertuko edo berriz sortuko; b) belaunaldi-ordezkapenak ez du eragin nabarmenik izango emakumezkoen hilkortasunean eta, horri esker, nabarmen murriztuko dira heldutasunean eta adinekoen lehen urteetan hiltzeko arriskuak; eta, c) biztanleriaren bizi-luzeraren aurrerapenak mantenduko dira, eta sakondu ere egingo dira; era berean, adin nagusienetan biziraupenak nabarmen egingo du hobera (1.4 grafikoa).

1.3 grafikoa: Bizi-itxaropenaren garapena eta proiektzioa jaiotzerakoan eta 65 urteko adinean sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa: 1981-2025.




1.4 grafikoa: Hiltzeko arriskuen bilakaera eta proiektzioa sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 1981-2025.



Oharra: behatutako datuak hiru urteko balioen batez bestekoa dira, erreferentziazko urtea ardatz gisa hartuta.

Lurralde historikoei dagokienez, EAE osorako planteatutako bizi-itxaropenaren bilakaeraren bidetik jarrai dezatela aurreikusten da, baldin eta epe ertainean irauten badute gaur egun ikusten ari diren hilkortasuneko diferentzial espazialek (1.5 grafikoa). Suposamendu hori justifikatu egiten da hau egiaztatuz: azken hamar urteetan, EAEn eta Lurralde Historikoen arteko diferentzia erlatiboek, bizi-itxaropenari dagokionez, egonkor jarraitu dute; bi sexuetan bizi-itxaropenik luzeenak arabarrek dauzkate, eta laburrenak bizkaitarrek. Aurreikuspenen arabera, 2025. urtean jaiotzerakoan batez besteko bizitza gizonen artean 82,2 urtekoa izango da Bizkaian, eta 83,5 urtekoa Araban; emakumeen artean, berriz, lurralde horietan 88,2 urtekoa eta 88,8 urtekoa izango da.

1.5 grafikoa: Bizi-itxaropenaren garapena eta proiektzioa jaiotzerakoan Euskal Autonomia Erkidegoan eta Lurralde Historikoetan. 1989-2025



Oharra: behatutako balioak hiru urteko taulei dagozkie, erreferentzia-urtea ardatz gisa hartuta.


1.2 Ugalkortasuna

Azken hiru hamarkadetan eraldaketa handia gertatu da Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren emakumezkoen ugalketa-mailan eta ugalketa-egutegian. Ugalkortasunaren beherakadak, beherakada horrek berekin dakarren haur eta gazteen murrizketarekin, eragina izan du zenbait arlotan, esaterako, hezkuntzan, osasunean eta talde horri zuzendutako ondasunen ekoizpenean. Alabaina, haurren eta gazteen biztanleriaren beherakada ugalkortasunaren beherakada baino txikiagoa izan da proportzionalki, eragin konpentsatzaile baten ondorioz: seme-alabak izateko

adinean dauden pertsonen kopurua handitzea; halaber, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadako ugalkortasun handiaren ondorioa da hori. Aldiz, azken hamarkadetan izandako jaiotza-tasen beherakadak hurrengo urteetan ugaltzeko adinean izango den biztanleriaren murrizketa ekarriko du eta horrek eragin negatiboa izango du haurren kopuruaren etorkizuneko garapenean, baita ugalkortasunaren errekupeazioan ere.

Azken hamar urtekoetan behera egin dute nabarmen biztanleriaren ugalkortasun-mailak. Emakume bakoitzeko seme-alaba kopuruak behera egin du, 1976ko 2,7etatik laurogeita hamargarren hamarkadako 0,9etara, eta gerora, hobera egin zuen 1,34 seme-alabetaraino 2012an (1.6 grafikoa eta 1.2 taula). Murrizketa hori, lehenik eta behin, hirugarren seme-alabak eta, oro har, familia ugariak, ia desagertzeak azaltzen du, 3. mailako eta gehiagoko ugalkortasuna emakumeko 0,11 seme-alabakoa baita, 1976. urtean behatutako maila baino zortzi bider txikiagoa. Ugalketa-proiektuaren kontraesanarekin batera, lehen eta bigarren seme-alaben ugalkortasun-mailen beherakada nabarmenak ere izan dira eta lehen eta bigarren seme-alaba horiek dira ugalkortasunaren maila osoan eragin handiena daukatenak. Ehuneko 30eko eta ehuneko 45eko beherakadak izan dira hurrenez hurren 1976 eta 2012 artean. Haurraren ordenaren arabera ugalkortasunaren murrizketaren erritmo desberdinak areagotu egin du lehen seme-alaben garrantzia jaiotza guztien kopuruan. 2012. urtean kopuru osoaren ehuneko 57 betetzen zuten eta hirurogeita hamarreko hamarkadan ehuneko 40koa zen kopuru hori.

1.6 grafikoa: Ugalkortasunaren Indize Sintetikoaren (UIS) eta Amatasunaren Batez Besteko Adinaren (ABBA) garapena Euskal Autonomia Erkidegoan. 1976-2012



Ugalkortasunaren beste dimentsio garrantzitsu batek pertsonen eta familien bizitzaren zikloarekin dauka lotura: amatasunaren adina da. Zalantzarik gabe, azken urteetako garapen garrantzitsuena ugalkortasun-bizitzaren adinaren hasiera, hau da, lehen amatasuna, 6 urte handitu da eta 31,5 urte ingurukoa da gaur egun. Lehen amatasuneko adin hain handiaren ondorioz, emakumezko askok bigarren edo hirugarren seme-alaba izatea 35 urte baino gehiagorekin planteatuko dute, haurdun geratzeko eta jaiotza bizi bat izateko probabilitate biologikoa murrizten denean. Gaur egun, euskal emakumezkoek bigarren seme-alabak 34 urteen inguruan izaten dituzte eta hirugarren seme-alabak eta hurrengoak izateko adina 34,3 urteen inguruan dago.


1.2 taula: UISren eta ABBAren bilakaera osoa eta jaiotzaren ordenaren arabera. EAE 1976-2012

	1976	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2012
UIS									
Guztira	2,71	1,74	1,22	0,97	0,94	1,05	1,21	1,35	1,34
Seme-alaba 1	1,10	0,79	0,60	0,52	0,53	0,61	0,70	0,76	0,76
Seme-alaba 2	0,85	0,59	0,45	0,37	0,36	0,38	0,42	0,48	0,47
3+ seme-alaba	0,76	0,36	0,17	0,08	0,06	0,06	0,08	0,11	0,11
ABBA									
Guztira	28,49	28,55	29,06	30,08	31,47	32,30	32,32	32,51	32,61
Seme-alaba 1	25,35	25,93	26,92	28,64	30,24	31,13	31,08	31,51	31,55
Seme-alaba 2	28,51	29,15	30,09	31,32	32,79	33,76	33,94	33,75	33,95
3+ seme-alaba	32,97	33,38	33,86	34,02	34,54	34,82	34,54	33,97	34,31

Azken bosturtekoetan ikusi da errekupeazioa izan dela ugalkortasunaren mailan 1994-95 biurtekoko minimo historikoetatik, orduan, emakumezko 0,9 seme-alabara ez baitzen iritsi ugalkortasunaren maila, 2012ko 1,34 seme-alabako mailara; hau da, ehuneko 50eko hazkundea hogeitaz gutxiago. Joera hori, ugalketaren portaeren aldaketa iraunkorrarekin ondorioz, etorkizunean mantenduko ote den edo, adin gazteagoetan amatasun atzeratua gauzatzeari lotuta, egoeraren arabera fenomeno izango den jakitea, horixe da muina. Galdera horri erantzuteko moduaren arabera, goranzko joera luzatuko lukeen etorkizuneko garapenari buruzko hipotesi bat edo joera hori motelduko lukeen beste hipotesi bat planteatuko luke.

Interesgarria da ikustea EAEko ugalkortasunaren gorakada biziagoa izan dela gainerako Autonomia Erkidegoetako baino (1.7 grafikoa). Laurogeiko hamarkadaren zati handi batean eta laurogeita hamargarrenekoaren erdian, EAEren ezaugarria ugalkortasun-mailarik txikiak diren. Azken bosturtekoetan, aldiz, EAEk ugalkortasunik handienetakoa dauka. Posizio erlatiboaren hobekuntzak azalpen hau dauka: atzeratutako ugalkortasunaren errekupeazioa handiagoa izan da, aurreko urteetan izandako maila baxuen ondorioz, baina halaber, goranzko joerak duela gutxira arte iraun du, Erkidego gehienetan krisi ekonomikoaren inguruabarraren ondorioz murriztu zenera arte, alegia.

1.7 grafikoa: EAEko eta beste Autonomia Erkidego batzuetako UISen arteko konparaketa. 1996-2012



Oharra: grafikoa ez dira agertzen Ceuta eta Melillako datuak.

Amaren adinaren arabera ugalkortasunaren garapenak bi epealdi handi identifikatzea ahalbidetzen du (1.3. taula). Lehen epealdian, 1976tik 1986ra artekoan, ugalkortasunaren beherakada orokorra gertatu zen eta adin-talde guztietan izan zuen eragina beherakada horrek. Beherakada oso handia izan zen tradizionalki ugalkorrenak diren adinetan eta 25 eta 29 urteen artean ugalkortasunaren tasa erdira murriztu zen, eta 20 eta 24 urteen artekoan, berriz, ehuneko 72ko beherakada izan zen, hamarkada bakarrean. Bigarren epealdian, laurogeiko hamarkadaren erdialdetik, fenomeno nagusia 30 urtetik aurrerako ugalkortasuna handitzea izan da, lehen amatasunaren adinaren atzerapenaren ondorioz, eta bi etapa bereiz daitezke ugalkortasunaren maila orokorrari dagokionez. Lehen etapan, 30 urtetik gorako tasen errekupeazioa ez zen nahikoa izan adin gazteenetako tasetan gertaturiko beherakada konpentsatzeko eta, horren ondorioz, emakume bategi batez besteko seme-alaben kopuruak beherantz jarraitu zuen laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdera arte. Ugalkortasunaren egutegiak izan zuen aldakuntza sakona, izan ere, 30 eta 34 urteen arteko taldeak hartu zuen ugalkorrenaren lekua 25 eta 29 urteen artekoak beharrean, eta 35 eta 39 urte arteko taldearen tasek 20 eta 24 urte arteko taldearen tasak gainditu zituzten. Bigarren etapan, 1996. urtetik aurrera, UIS errekupeatzen hasi zen adin gazteetako ugalkortasunaren tasek izandako beherakadaren ondorioz eta 30 urtetik aurrerako goranzko joera mantentzearen eraginez. Horrek guztiak azaltzen du 1996. urtetik 2012ra izandako ugalkortasunaren kopuru osoak ehuneko 90eko hazkundea izan duela.

1.3 taula: Ugalkortasunaren bosturteko tasen garapena. EAE: 1976-2012 (tasak milaka)

Tasa	1976	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2012
15-19	20	14	8	4	2	3	6	6
20-24	141	79	40	20	10	10	16	19
25-29	190	129	98	69	52	43	45	47
30-34	116	80	69	75	87	97	101	103
35-39	56	34	24	22	33	51	63	77
40-44	19	10	5	3	4	7	11	15
45-49	2	1	0	0	0	0	1	1
UIS	2,72	1,73	1,22	0,97	0,94	1,05	1,21	1,34

Eskema orokor hori aldatu egin da azken urteetan 25 urtetik beherako emakumezkoen ugalkortasunak izandako gorakadaren ondorioz. Alabaina, haustura hori ez da portaeraren aldaketa baten ondorioa, hau da, ugalketa-egutegia gatzetzearen ondorioa, ugalkortasun-patroi gazteagoa daukaten emakumezko atzerritarrak iristearen ondorioa baizik. Immigrazio horren rola jaiotza-kopuru osoan ama atzerritarrengandik jaiotakoek daukaten pisuaren garapenean egiazta daiteke. Proportzio horrek nabarmen egin du gora 30 urtetik beherako amek izandako jaiotzetan eta, are gehiago, 2012ko behin-behineko datuen arabera, ama atzerritarrek izandako jaiotzak dira nagusi Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 25 urtetik beherako amen artean. Beste modu batera esanda, immigrazio horren eraginik gabe, adin gazteenetako ugalkortasun-tasek hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik izandako beheranzko joerarekin jarraituko zuketen.


Nabarmendu beharreko bigarren alderdi bat da 1996. eta 2012. urteen artean izandako ugalkortasunaren gorakadaren oinarria, funtsean, 1. ordenaren garapenean dagoela, emakumezko 0,61 lehen seme-alabako batez bestekotik 0,76ra igaro da eta UISen hazkunde osoaren ehuneko 55 osatzen du (1.4. taula). Joera horrek eta errekupeazioa 30 urtetik gorako adinetan bilduta izateak ahalbidetzen du arestian planteaturiko galderari erantzuna ematea: berriki izandako UISen hazkundeak ugalkortasun-maila handiagorako joera-aldaketa iragartzen al du ala egutegian ugalkortasunaren adinen aldaketa egokitzearen ondorioa al da? 1. ordenak 1996. urtean izandako joera baxuak gora egiteak eta egutegiaren aldaketa handiak adieraziko lukete ugalkortasuna adin gazteetan atzeratu zen amatasuna errekupeazioaren eraginak kontrolatu du intentsitatearen aldakuntzak baino gehiago, hau da, emakumezkoek azkenean izango duten ondorengotzak.

1.4 taula: Ugalkortasun-tasen garapena haurren ordenaren arabera. EAE 1995 eta 2012 (tasak milaka)

	Ordena guztiak		1. ordena		2. ordena		3. ordena eta geroagoak	
	1995	2012	1995	2012	1995	2012	1995	2012
15-19	3	6	2	6	0	0	0	0
20-24	12	19	9	13	2	5	0	1
25-29	53	47	39	32	12	12	1	3
30-34	82	103	43	63	35	34	5	6
35-39	28	77	10	32	14	36	5	9
40-44	3	15	1	6	1	6	1	2
45-49	0	1	0	0	0	0	0	0
UIS	0,90	1,34	0,52	0,76	0,32	0,47	0,06	0,11

Azkenik, Lurralde Historikoetako ugalkortasunaren ezaugarrien analisiari esker, hurrengo urteetan jarraituko duten edo leunduko diren behin-behineko edo behin betiko joerak eta alderdiak identifika daitezke (1.8. grafikoa). Aldaketen artetik nabarmentzekoa da Gipuzkoan izandakoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan zeukan posizio erlatiboa alderantzikatu baitu eta, azken hamabost urteetan, ugalkortasun handieneko Lurraldea izatera igaro da. Aldiz, Arabako eta Bizkaiko garapenak antzekoak izan dira mailari eta joerari dagokionez. Hala ere, azken epealdian ikusi da Araban bizi diren emakumeen ugalkortasunak gorakada erlatibo handiagoa izan duela. Hori azaltzen du, neurri handi batean, ama atzeritarrengandik jaiotakoen garrantziak.


1.8 grafikoa: Ugalkortasunaren Indize Sintetikoaren (UIS) eta Amatasunaren Batez Besteko Adinaren (ABBA) garapena. Euskadi eta lurralde historikoak. 1976-2012



Egutegia kontuan hartuta, Araban, laurogeiko hamarkadatik, beste bi lurraldeetako amatasunaren batez besteko adina baino pixka bat txikiagoa izan da eta atzerapen handiena, berriz, Bizkaian izan da. Alderdi horiek, Araban, 25 urte baino lehenagoko ugalkortasun-tasen bitartez azal daitezke, Lurralde horretan immigrazioak ugalkortasunaren gainean daukan eragin erlatibo handiagoaren ondorioz. Gaur egungo testuinguruan, ugalkortasun-mailaren oszilazioa Bizkaian emakumeko dagoen 1,27 seme-alabako kopuruaren eta Gipuzkoako 1,42koaren artekoa da eta, aldiz, amatasunaren batez besteko adina Arabako 32,3 urteen eta Gipuzkoako 32,7en artekoa.


Ordenaren eta amaren adinaren arabera ugalkortasunaren joera berrien estrapolazioaren bidez, aurreikusi ahal da 2025ean emakume bakoitzak 1,54 seme-alaba izango dituela EAE osoan (1.9 grafikoa). Lurralde historikoetarako aurreikusten den bilakaeraren noranzkoa antzekoa da, eta ez da aurreikusten ugalkortasun-mailetan konbergentziarik gertatuko denik. Hala, aurreikuspenen arabera, 2025. urtean UIS Bizkaiko minimoaren, 1,47 seme-alaba emakumeko, eta Arabako maximoaren, 1,67 seme-alaba emakumeko, artekoa izango da. Urte hartan Arabako UIS Bizkaikoa baino ehuneko 13 handiagoa izango litzateke; ugalkortasunaren aldetik Gipuzkoaren eta Bizkaiairen arteko diferentziak konstanteak izango lirateke.

1.9 grafikoa: EAEko eta bere Lurralde Historikoetako UISren bilakaera eta proiektzioa. 1995-2025.



Ugalkortasunaren ibilbidea goranzkoa izango da adin-talde guztietan, baina 25 eta 29 urteen artekoak hazkunde-erritmorik motelena izango du (1.10. grafikoa).

1.10 grafikoa: Ugalkortasun tasen garapena eta proiektzioa amaren bosturteko adin-taldearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 1995-2025 (tasak milaka)



Hurrengo urteetan amatasunaren hasiera atzeratuko da eta adin gazteetan atzeratutako ugalkortasunaren erreperazioa gertatuko da eta, horren ondorioz, 30 urtetik gora tasak handitzeko joera mantenduko da, baina iraganean baino erritmo motelagoan. Orotara, UISean 2012. eta 2025. urteen artean aurreikusitako erreperazioaren ehuneko 75ek ugalkortasunaren 30 urtetik gorako portaeran izango du oinarria eta, balioespenaren arabera, epealdiaren amaieran 30-34 urteen arteko tasa milako 110 baino pixka bat txikiagoa izango da, 35-39 urteen artekoa milako 95 ingurukoa eta 40 eta 44 urteen artekoa, berriz, milako 21ekoa. Joera horrekin batera, 25 urtetik beherako emakumeen ugalkortasunak gora egingo du apur bat eta 15 eta 19 urteen arteko tasa milako 6tik milako 8ra igaroko da eta 20 eta 24 urteen artekoa milako 19tik milako 25era. Alabaina, adin horietako ugalkortasunaren bilakaerak ziurgabetasun-faktoreak ere baditu. Faktore horietako batzuk hauek dira: ugalkortasun-adinean diren biztanle atzerritarren kopuruan aldaketak egotea edo emakumezko atzerritarren ugalkortasun-patroiak atzerakada izatea Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzeko denbora handitzen doan heinean.

1.3 Migrazioak

Migrazioen intentsitatea eta izaera funtsezkoak izan dira Euskal Autonomia Erkidegoko iraganeko eta oraingo dinamika demografikoan. Hirurogeiko hamarkadan eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren lehen erdian Estatuko gainerako lurraldeetatik iritsitako immigrazio-korronteek biztanleria-hazkundearen motorra osatu zuten eta, gainera, gaztetu egin zuten biztanleriaren egitura adinaren arabera, adin helduetako pertsonak ekarrita eta jaiotza-tasa sustatuta. Gerora izandako migrazio joan-etorrien dezelerazioaren eta XX. mendearen azken laurdenean joan-etorri horien ikurra alderantzikatzearen ondorioz, EAE emigrazio-eremu bihurtu zuten. Mendealdaketarekin batera, Estatuko gainerako aldeetatik nahiz atzerritik datozen migrazio joan-etorrien rol gero eta handiagoan eta ikur positiboko migrazio-saldoen itzuleran oinarrituriko eredua ezarri da. Halaber, egoitza-mugikortasuna handitzeak eta atzerriko biztanleria handiagoa izateak barneko migrazio-elkartrukea areagotzea ekarri dute. Hala ere, azken urteotan joera horiek alderantzikatu egin dira, behera egin baitu nabarmen atzerritik datozen sarrerren kopuruak –sarrera horien gehieneko kopurua 2007an gertatu zen–, eta duela gutxiago, Estatuko gainerako aldeetatik datozen sarrerrenak ere bai. Sarrera-kopuruak behera egin ahala, kanporanzko irteera-kopuruak apur bat gora egin du. Irteera horietako gehienak, aurreko hamar urteetan etorritako atzerritarrenak izan dira.

Migrazioen etorkizuneko balioespenaren arabera, ziurgabetasuna handia izango da, faktore ugari baitaude tartean, atzerriko joan-etorrien erregulazio mailako arauzko alderdietatik hasi eta eremu hartzaileen era igorleen inguru sozioekonomikora. Alderdi horiez gain aipatu behar dira fenomenoak neurtzeko arazoak, bereziki, atzerriarantzko irteerei lotutakoak, eta gaur egungo inguruabar ekonomikoari nahiz migrazio-fluxuek jasango dituzten eraginei buruzko ziurgabetasuna. Joerarik berrienekin bat etorritik, migrazioei buruzko hipotesiek erakusten dute, oro har, migrazio-fluxuek nabarmen egingo dutela behera epe laburrean eta gerora berriro gora egingo dutela mende honen hasieran ikusitakoen antzeko mailataraino, eta aldi berean, emigrazioari dagokionez joerarik berrienak mantenduko direla.


1.3.1 Etorkinen joan-etorrien joera eta proiektzioa

Euskal Autonomia Erkidegoko etorkinen joan-etorrien maila nabarmenaren erreperazioa, zalantzarik gabe, azken urteetan gertaturiko aldaketa demografiko garrantzitsuena da. 2000 eta 2007 artean sarrera kopurua bikoiztu egin zen, 20.000tik 41.000 baino apur bat gehiagora arte egin baitzuen gora, atzerritik zetorren immigrazioaren puntu gorenean. Hala ere, epealdirik berrienean, 2007 eta 2012 artean, fluxu hori heren bat murriztu da, atzerritik datozen sarrerek bat-batean behera egin dutelako, eta Estatuko gainerako aldeetatik datorren immigrazioak artean zeukan goranzko joera alderantzikatu baino lehenagoko aldian. Joera horien korolariora gisa,

aldu egin dira immigrazio-fluxuen jatorriak: 2007an, immigranteen ehuneko 54 atzeritik zetozen; 2012an, aldiz, atzeritarren garrantzia ehuneko 30etik beherakoa zen.

EAerentzako immigrazio-hipotesia egitean, bereizi egin dira Estatuko gainerako aldeetatik datozenak eta atzeritik datozenak (1.11 grafikoa).

1.11 grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoan izandako sarreren bilakaera eta proiektzioa. 1988-2025.




Beste Autonomia Erkidego batzuetatik datorren immigrazioari dagokionez, onartu egin dira Estatistikako Institutu Nazionalak “Populazioaren Proiektzioa Epe Laburrean 2013-2023” azterlanean sexuaren arabera aurreikusitako bolumen osoak. Jokatzeko modu horren arrazoia hau da: sarrera horiek alde batetik Estatuko gainerako aldeetatik EAera emigratzeko joeraren mende daude, eta bestetik, datozen urteetan jatorri horiek dauzkan biztanleriaren tamainan eta egituren aurreikusi diren aldaketen mende daude. Alde horretatik, Estatistikako Institutu Nazionalaren proiektzioak aurreikusten duenez, Espainiako populazioak behera egingo du, bereziki adin heldu eta gazteetan, horiek baitaukate emigratzeko joerarik nabarmenena. Beraz, behera egingo dute Estatuko barneko migrazio-fluxuek, eta horren ondorioz, EAerako sarreren kopuruak ere bai. Proiektzio horietan Estatistikako Institutu Nazionalak beste Autonomia Erkidego batzuetatik datozen sarreren beheranzko fluxua aurreikusten du, 2013ko 17.000 baino apur bat gehiagotik 2022ko 14.000 ingurura. Estatistikako Institutu Nazionalaren proiektzioak hartzen ez dituen azken urteetarako, joera luzatuko da, 2025ean 13.700 immigratzaile izateraino. 2013-2025 aldi osorako, Estatuko gainerako

aldeetako immigratzaileak guztira 195.000 inguru izango dira, aurreko aldi berberean – 2000-2012 aldian, 241.000 sarrera–izandakoa baino kopuru txikiagoa.

Atzeritik datorren immigrazioari dagokionez bi hipotesi formulatu dira migratzailearen nazionalitatearen (espainiarra/atzeritarra) arabera. Epe laburrean espainiarren sarrerek behera egingo dutela eta 2015etik aurrera urtean 1.000 izango direla aurreikusi da. Gaur egungo inguruabar ekonomikoa kontuan hartuta, eta joerarik berrien bidetik, atzeritarren bolumenak bat-batean behera egingo duela aurreikusi da, 2015ean gutxienez 750 pertsona izan arte. Data horretatik aurrera sarreraren fluxuak gora egingo luke, epealdiaren amaieran urteko 8.000 izan arte, hau da, mende honen hasieran erregistratutakoen antzeko balioetara arte. Termino agregatuetan, bi nazionalitateak kontuan hartuta, atzeritik 2012 eta 2025 artean izandako atzeritarren sarrerak 62.000 pertsona baino apur bat gehiago dira. Hori, aurreko hamahiru urteetan gertatutakoen kopurua –176.000 sarrera– baino ehuneko 65 txikiagoa da.

1.12 grafikoa: EAEn izandako immigrazioaren patroia erlatiboak. 2010-2012.




Oharra: leundutako patroiak.

Immigrazioak adin-profil espezifikoak ditu sexuaren, nazionalitatearen eta jatorriaren arabera (1.12 grafikoa). Atzeritik datozen eta atzerriko nazionalitatea daukaten immigranteek adin heldu eta gazteetan migratzen dute, eta 50 urte baino gehiagoko immigranteak oso gutxi dira. Aldiz, Estatuko gainerako aldeetako sarreretan patroia apur bat sakabanatuago dago hurren parte-hartzea handiagoa delako eta adin helduetan eta nagusietan joan-etorri garrantzitsuak daudelako, batik bat emakumezkoen kasuan. Arrazoi horregatik, proiektatutako immigrazio-fluxuetako bakoitzaren migrazio-egutegi propioa kontuan hartu da. Immigrazioaren patroia erlatiboak 2010-12 hirurtekoko datuekin taxutu dira, eta konstanteak izan dira

denboran egonkorrak direlako. Alabaina, immigrazioaren kronologia desberdina izan da jatorriaren eta nazionalitatearen arabera eta, horren ondorioz, egutegi bateratua aldatzen joan da denboraren joanean. Datozen urteetan atzerriko sarrerren garrantziak behera egingo duenez, patroio orokorra beste Autonomia Erkidego batzuetatik datozen sarrerren kopurura hurbilduko da apurka. Adin heldu eta gazteen garrantzi erlatiboak apur bat behera egingo du, eta adin heldu eta nagusiek garrantzi handiagoa izango dute

EAE osorako proiektatutako hiru immigrazio fluxuak lurralde historikoei esleitu zaizkie 2010-2012 epealdiko datuetan oinarrituriko adin-taldeen eta sexu-taldeen banaketa-matrizeak erabilita. Lurralde baterako sarrerak, beraz, EAEko immigrazio-mota bakoitzerako aurreikusitako hipotesien eta lurralde bakoitzak fluxu horiek erakartzeko daukan gaitasunaren mende daude. Bi elementuak konbinatzean, joera parekoa da lurralde guztietan baina erritmoari dagokionez aldeak daude immigrazio-motek izango duten garapenaren arabera (1.13 grafikoa).

1.13 grafikoa: Lurralde Historikoetara iritsitako etorkinen bilakaera eta proiektzioa.
1988-2025




2013-25 epealdi osorako, orotara, Araban 48.000 etorkin izango direla dago aurreikusita eta ehuneko 20 atzerritarrek izango dira; Bizkaian 138.000 izango dira eta sarrerren ehuneko 25 atzerrikoak izango dira; eta Gipuzkoan 81.000 izango dira eta ehuneko 26 izango dira Estatutik kanpokoak. Proiektatutako epealdi osoa aurreko hamalau urteetako sarrera-fluxuekin konparatuz, immigrazioaren bolumenak behera egin du Araban ehuneko 41, Bizkaian ehuneko 40 eta Gipuzkoan ehuneko 33.

1.3.2 Emigrazioa Estatuko gainerako lurraldeetara eta Atzerrira

Mende honetan EAEtik kanporako emigrazioak bi epealdi izan ditu. Lehenengo epealdiaren ezaugarria, etorkin kopuruaren hazkunde iraunkorra izan zen; mende aldaketako urteetan, urteko 17.000 baino apur bat gehiagotik, 2007-08 biurtekoan batez beste 28.000 baino gehiagora igaro zen. Urte horietan Estatuko gainerako lurraldeetarako emigrazioak apur bat gora egiten du eta aldi berean atzerriranzko irteeren kopuruak nabarmen egiten du gora; horrek lotura estua dauka biztanle atzerritarren kopuruaren gorakadarekin berarekin. Hala, 2000-01 aldian EAEtik irten zirenen ehuneko 5 soilik joan zen atzerrira; 2007-08 aldian, berriz, ehuneko 30 izan ziren. Azken bosturtekoa hartzen duen bigarren aldian, ezaugarri nagusia emigrante-kopuruaren egonkortasun erlatiboa da, urtean 27.000 inguru, Estatuko gainerako lurraldeetarako irteeren kopuruak izandako jaitsiera iraunkorraren ondorioz. Jaitsiera hori konpentsatu egin zen kanporanzko emigrazioak antzeko kopuruan izandako gorakadaren ondorioz, kanporanzko emigrazio hori guztizkoaren ehuneko 40 izanik.

Kanpoko emigrazioaren indize sintetikoak azken bosturtekoan izandako bilakaeran ageri dira joera horiek. Indizearen balioak aldakuntza urriak dauzka irteeren multzoa kontuan hartzen bada, baina egonkortasun horren atzean beste Autonomia Erkidego batzuetara emigratzeko joeraren beherakada dago, ehuneko 13 ingurukoa. Beherakada hori konpentsatu egiten du atzerriranzko emigrazio-intentsitatearen hazkunde handiagoak (ehuneko 40 inguru) (1.14 grafikoa).


1.14 grafikoa: Emigrazioaren Indize Sintetikoaren garapena sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Lurralde Historikoak.1988-2012. (mila biztanleko)



Oharra: leundutako datuak erreferentziatzko urtea ardatz gisa hartutako hiru urteko batez besteko mugigarriarekin leunduta.

Emigrazio-intentsitate osoaren bilakaerak lurralde historikoetan eta EAE osoan paralelismo handia dauka, baina maila aldean diferentzia esanguratsuak daude (1.15 grafikoa). Emigratzeko joerarik nabarmenenak Araban bizi diren biztanleen artean gertatzen dira, bereziki gizonen artean; joerarik txikienak, berriz, Gipuzkoan; Bizkaia tarteko posizioan dago, gizonezkoei dagokienez Gipuzkoatik hurbilago, eta emakumezkoei dagokienez Arabatik hurbilago. Lurralde arloko aldakortasuna handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino. 2010-12 hirurtekoan, arabarrek zeukaten migratzeko joera handiagoa gipuzkoarrek baino, ehuneko 41 handiagoa gizonen artean eta ehuneko 23 handiagoa emakumeen artean. Diferentzia horiek, alde batetik, Arabako gizonen artean emigratzeko joerak izan duen gorakada handiaren ondorioz sortzen dira, eta bestetik, emigrazioa Gipuzkoan apur bat beranduago handitzearen ondorioz. Dena dela, eta erritmoaren eta mailaren aldeetatik dauden diferentzia horiek gorabehera, Lurralde Historiko guztien ezaugarria da emigrazio osoaren adierazle sintetikoek azken epealdian izandako egonkortasuna da.

1.15 grafikoa: EAEko emigrazio-tasak, sexuaren eta destinoaren arabera. 2010-12 (tasak mila biztanleko)




Oharra: leundutako patroiak.

Destinoaren arabera (bereziki destinoa atzerria denean) hipotesi diferenteak formulatzea zaila denez, kanporanzko emigrazioa batera hartzea erabaki da. Hipotesiak planteatzen duenez, proiektzio-aldian konstantea izango da 2010-12 hirurteko migrazio-intentsitatea (1.5 taula). Suposamendu hori EAE osoari nahiz bere lurralde historikoei aplikatu zaie, eta kanpoko emigrazioaren adierazle sintetikoak eremu guztietan azken urteetan izan duen egonkortasunarengatik justifikatzen da.

1.5 taula: Emigrazioaren Indize Sintetikoa sexuaren eta destinoaren arabera EAEn eta lurralde historikoetan. 2010-2012 hirurtekoa. (mila biztanleko)

		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskal AE
Destinoa: Estatuko gainerako aldeak	Gizonak	803	711	591	686
	Emakumeak	737	678	575	654
Destinoa: atzerria	Gizonak	585	390	391	420
	Emakumeak	361	328	315	329
Guztira	Gizonak	1.388	1.101	982	1.107
	Emakumeak	1.098	1.006	891	982

1.16 grafikoa: Barne Migrazioko Indize Sintetikoaren garapena eta proiektzioa sexuaren arabera Lurralde Historikoetan. 1988-2025.



Oharra: leundutako patroiak.


Kanpoko emigrazio-tasek adinaren araberako profil diferenteak dauzkaten, destinoa bata ala bestea den (1.16 grafikoa). Estatuko gainerako lurraldeetarako emigrazioaren egitura demografikoan, emigrazio-tasa handienak adin heldu gazteetan daude eta horiek lotura daukate langileen mugikortasunarekin eta familiaren prestakuntzarekin. Eta "arrastatze" osagaia ere badago migrazioan, haurtzaroko tasek adierazten duten moduan. Gainera, beste moda bat dago 65 urteen inguruan eta horrek itzulerako migrazioa adierazten du. Adin nagusienetan, moda hori autonomia pertsonalaren galerarekin edo alarguntasunarekin lotzen da. Bi modetan emakumezkoen patroia apur bat gazteagoa da gizonezkoena baino, 2-3 urte inguru gazteagoa. Bikotea eta familia eratzeko adinaren aldetik sexuen artean dauden diferentziak adierazten ditu horrek. Beste alde batetik, atzerrirako emigrazioan protagonistak funtsean gazteak eta helduak dira, segmentu horietan biltzen baitira atzerritar gehienak; halaber, segmentu horietan osagai familiarak ez dauka eraginik. Lurralde Historikoetako emigrazioaren adinaren araberako patroiak Euskal Autonomia Erkidegorako aurreikusitako profil orokorrera egokitzen dira eta alde txikiak dituzte, esaterako, erretiroaren inguruko adinetan tasen pisu txikiagoa Araban.

1.3.3 Lurralde Historikoen arteko barneko mugimenduak

Mende honetako lehenengo hamarkadan, lurralde historikoen arteko migrazio-elkartrukeek gorakada iraunkorra izan dute, 2000-02 hirurtekoan, urtean batez besteko 4.000 ziren. 2010etik aurrera, berriz, urtean 5.000 baino apur bat gehiago. Gorakada horrek, zati batean, atzerriko biztanleria handiago izateagatik gertatu dira; biztanleria horrek, bere egitura demografikoarengatik, egoitza-mugikortasun handiagoa dauka. Hala ere, gorakadak gorakada, barneko fluxuen bolumen osoa txikia da eta lurralde historikoetako garapen demografikoaren gaineko eragina ez da handia izan, barneko migrazio-saldoak maila eskasekoak baitira. Hala, 2010-12 hirurtekoan, guztira 462 pertsona gehiago izan dira Araban eta 397 Gipuzkoan, eta horrenbestez, Bizkaian 859 egoiliar galdu dira.

Egoitza beste lurralde historiko bateko udalerri batera aldatzeko joera handiagoa barne migrazioa indize sintetikoak (BKIS) azken hamar urtekoan sexu bietan izan duen ehuneko 30eko gorakadan ageri da. Araban bizi direnek daukate barneko migrazioa egiteko joera handiagoa, Erkidego osoko kopurua halako bi; aldiz, beste bi Lurraldeetako biztanleen emigrazio-intentsitatea nabarmen txikiagoa da. Gainera, lurralde-patroi hori ez da aldatu barneko mugikortasunaren gorakadaren ondorioz, eta migrazio-diferentzialak aldakuntzarik gabe mantendu dira.

1.17 grafikoa: Barneko migrazioaren patroi erlatiboak sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. 2010-2012.




Oharra: leundutako patroiak.

Etorkizunera begira, joera berriak mantenduko direla eta epe laburrean migrazioarako joerak apur bat gora egingo duela aurreikusi da, eta, ondoren, beherakada izango du mende hasierako mailaren parera iritsi arte (1.17 grafikoa). Barneko mugikortasunaren beherakada hori azaltzen duen faktore bat hau da: atzerriko biztanleriaren sarrerei dagokienez murrizketa gertatuko dela aurreikusi da. Beste alde batetik, diferentzial geografikoak mantendu egingo dira eta Arabako egoiliarren barneko mugikortasunaren mailak bikoiztu egingo du beste bi lurralde historikoetakoak.

Migrazio horren egitura demografikoa mugikortasunaren patroia orokorrera egokitzen da bizitzaren zikloaren etapetan. Migrazio horiek lotura daukate enpleguaren bilaketarekin eta familiaren eraikuntzarekin eta barneko mugimenduen ehuneko 40 inguru erdia 20 eta 34 urteen artean dago bilduta, emakumezkoen egutegia apur bat gazteagoa izanik. Emigrazio-maila handiena 28 eta 30 urteen arteko gizonezkoena eta 26 eta 28 urte arteko emakumezkoena da, emantzipatzeko adinaren atzerakadaren ondorioz eta bizikidetzari ekiteko adinean dauden sexuaren arabera diferentzialen eraginez. Migrazio horien zati bat seme-alaba txikiak dituzten familiei dagokie eta 10 urtetik beherakoak barne migratzaileen ehuneko 12 inguru dira. Patroi orokor horrek zenbait bitxikeria dauzka Lurralde Historikoei dagokienez. Esaterako, Araban adin heldu-gazteek barneko emigrazioan daukaten pisu erlatibo txikiagoa (1.18 grafikoa). 2004-06 eta 2010-12 hirurtekoetako migrazio-patroien arteko konparaketak antzekotasun handia dagoela erakusten du, eta horrek justifikatu egiten du proiektzioan zehar konstanteak mantentzearen aukera.

1.188 grafikoa: Sexuaren arabera barruko migrazioaren patroia erlatiboak eta lurralde historikoa. 2010-2012.



Oharra: leundutako patroiak.

Azkenik, lurralde historikoen arteko migrazio-elkartrukeen eredu espazialari lotuta, 2010-12 hirurteko jatorri-destino joan-etorrien matrizea egin da. Matrizearen analisiak erakutsi du destinoetan lehentasunek lotura daukatela migrazioa gertatzen den bizitza-zikloaren etaparekin. Adibide gisa aipatuko dugu beste Lurralde Historiko batera emigratzen duten 20 eta 39 urte arteko gipuzkoarren ehuneko 69k Bizkaia daukatela xede eta, aldiz, 65 urte eta gehiagokoaren taldean destino hori ehuneko 62koa da. Horregatik, bizitza-zikloaren etaparen arabera (0-19, 20-39, 40-64 eta 65 urte eta gehiago) elkartruke-matrize espezifikoak eraikitze erabakia hartu da eta egonkor mantendu dira proiektzioaren epealdi osoan.


2 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETA LURRALDE HISTORIKOETAKO BIZTANLERIA 2013-2026

Mende aldaketak haustura ekarri zuen euskal biztanleriaren garapenean, alderantzikatu egin baitzen aurreko urteetako dinamika beherakorra eta hazkunde demografikoko etapa bat etorri baitzen. Datozen bosturtekoetan, eta prospekzio-ariketa honetan formulatutako hipotesiak oinarri hartuta, joera hori eten egingo da, EAEn bizi den biztanleriaren beherakada iraunkorra gertatuko dela aurreikusi delako; 2026an, biztanleriaren kopurua mende hasieran erregistratu zenaren antzekoa izango da. Aldi beran, biztanleriaren zahartze-prozesua azkartuko da, biztanleriaren piramidearen oinarrian zein erpinean. Joera demografiko horiek eragin berbera izango dute lurralde historiko guztietan, baina berezitasun batzuk egongo dira prozesuen eritmoari eta intentsitateari dagokienez.

2.1 Biztanleria eta hazkunde demografikoaren osagaiak

Biztanleriaren proiektzioan epe labur eta ertainean planteatzen duen egoera demografikoan, EAEko biztanleria murriztuko da (2.1 grafikoa).

2.1 grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren garapena eta proiektzioa. 1982-2026.



Oharra: urtarilaren 1eko biztanleriak.

2026. urtearen hasieran 2,077 milioi biztanle aurreikusi dira; horrek esan nahi du 102.000 pertsona gutxiago izango direla 2013arekin alderatuta. Urte guztietan, lehenengoan izan ezik, biztanleriak behera egingo du; epealdi osoan, urteko tasa $-3,7\%$ izango da. Beherakadaren erritmorik handienak hamarkada honen amaieran gertatuko dira, urteko $-4,4\%$ ko tasekin; gerora, beherakadaren erritmoa moteldu egingo da, eta proiektzioaren epemugan tasa $-2,8\%$ izango da.

Hiru lurralde historikoetako biztanleria murriztu egingo da epe ertainean, EAEko biztanleriarentzat aurreikusita dagoen bidetik, baina diferentzia batzuk egongo dira erritmo eta intentsitate aldetik (2.1 taula). 2012 eta 2026 artean, Arabak 6.000 biztanle baino apur bat gehiago galduko ditu; Gipuzkoan, berriz biztanleriaren beherakada 31.000 pertsonakoa izango da, eta Bizkaian 65.000koa. Arabako biztanlerian bilakaera hain txarra izango ez denez, han hazkunde-tasa ere ez da izango hain negatiboa, urtean $-1,5\%$, Gipuzkoako $-3,0\%$ aren eta Bizkaiko $-4,4\%$ aren aldean. Erritmo-diferentzia horien ondorioz, luzatu egingo da azken bosturtekoan izandako joera: hala, Arabako biztanleriak gero eta garrantzi erlatibo handiagoa izango du EAE osoan, Bizkaiaren kaltetan. 2026. urterako aurreikusi da biztanleriaren ehuneko 15,1 Araban biziko dela, (ehuneko 1,4 puntu gehiago 2001ean baino), ehuneko 52,3 Bizkaian (ehuneko 1,5 puntu gutxiago mende hasieran baino), eta ehuneko 32,6 Gipuzkoan.

2.1 taula: Euskal Autonomia Erkidegoko eta lurralde historikoetako biztanleriaren proiektzioa. 2013-2026. Biztanleria milakotan

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
2012	321,9	1.154,1	705,6	2.181,6
2013	323,0	1.155,0	707,5	2.185,5
2014	323,2	1.152,3	706,7	2.182,2
2015	323,0	1.148,1	705,2	2.176,3
2016	322,3	1.142,3	702,8	2.167,3
2017	321,5	1.136,4	700,1	2.158,1
2018	320,8	1.130,4	697,4	2.148,7
2019	320,1	1.124,5	694,6	2.139,3
2020	319,4	1.118,7	691,8	2.129,9
2021	318,7	1.113,1	689,0	2.120,8
2022	318,1	1.107,6	686,2	2.112,0
2023	317,6	1.102,5	683,5	2.103,6
2024	317,1	1.097,8	681,0	2.095,9
2025	316,8	1.093,6	678,7	2.089,0
2026	316,6	1.089,9	676,6	2.083,1

Oharra: urtarilaren 1eko biztanleriak.

EAEko biztanleriaren etorkizuneko bilakaeran saldo negatiboak konbinatuko dira hazkunde demografikoaren bi osagaietan, osagai naturalean eta migrazio-osagaian (2.2 taula eta 2.2 grafikoa). Hazkunde naturalaren joera da saldoak gero eta negatiboagoak izatea, heriotzen kopuruak gora egingo duelako, eta jaiotzen kopuruak nabarmen behera egitea, adin ugalkorretan dauden biztanleen kopuruak behera

egingo duelako. Proiektatutako epealdi osorako zerbait baina 50.000 pertsonako saldo begetatiboa aurreikusten da; azken urteetan galerak 6.000 pertsonatik gorakoak izango dira. Migrazio-saldoaren ondoriozko biztanleria-galera antzekoa izango dela aurreikusi da, 51.000 biztanle inguru datozen 13 urteetan. Hala ere, eta hazkunde naturalaren beheranzko joera linealarekin gertatzen denaren aurka, aurrez ikusi da migrazio-kitapenak bere epe ertainerako joera negatiboa motelduko duela berriro botatuko epealdi azken urtean kitapen positibora heldu arte. Alde batetik, emigrante-kopuruak beherakada iraunkorra izango du, migratzeko aukera handienak dauzkaten adinetako biztanleen kopuruek, hau da, adin heldu-gazteetakoek, apurka behera egingo dutelako. Beste alde batetik, etorkin kopuruaren bilakaera, atzeritik datozen sarrerako fluxuei buruz formulatutako hipotesiaren arabera, nabarmen uzurtuko da epe laburrean, eta apur errekuiperatuko da epe ertainean, baina argi eta garbi azken urteotan erregistratutako balioetatik behera geratuko da.


2.2 taula: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren eta fenomeno demografikoen proiektzioa. 2013-2026

	Biztanleria Urtarrilak 1	Heriotzak	Jaiotzak	Etorkinak	Emigratzaileak	Biztanleria Abenduak 31
2012	2.181.591	20.001	20.551	30.109	26.711	2.185.539
2013	2.185.539	20.225	20.226	23.011	26.317	2.182.234
2014	2.182.234	20.421	19.751	20.542	25.854	2.176.252
2015	2.176.252	20.599	19.192	17.856	25.366	2.167.334
2016	2.167.334	20.760	18.590	17.783	24.877	2.158.070
2017	2.158.070	20.903	17.988	17.974	24.417	2.148.712
2018	2.148.712	21.026	17.404	18.181	23.991	2.139.280
2019	2.139.280	21.129	16.856	18.504	23.600	2.129.910
2020	2.129.910	21.214	16.361	18.946	23.249	2.120.754
2021	2.120.754	21.278	15.925	19.506	22.939	2.111.967
2022	2.111.967	21.326	15.554	20.086	22.672	2.103.610
2023	2.103.610	21.358	15.260	20.838	22.448	2.095.902
2024	2.095.902	21.378	15.045	21.714	22.269	2.089.013
2025	2.089.013	21.391	14.912	22.665	22.134	2.083.065

Proiektzioaren epemugan, aurreikusi denez, migrazio-saldoa berriro ere positiboa izango da, baina magnitude eskasekoa izango denez ezin izango du gero eta negatiboagoa den saldo begetatiboa konpentsatu, jaiotza-tasaren beherakada handiaren ondorioz. Azken alderdi horri dagokionez, ugalkortasun-mailen errekuiperazioa aurreikusi da, 2025ean emakume bakoitzeko 1,54 seme-alabaraino; dena dela, EAEn bizi diren amengandiko jaiotzek behera egingo dute nabarmen datozen bosturtekoetan. Beherakada horren arrazoia adin ugalkorrenetan dauden emakumezkoen kopuruaren murrizketan datza, laurogeita hamarreko hamarkadan jaiotako belaunaldi “hutsak” adin horietara heltzen doazen heinean eta kohorte ugariagoak ordezkatzeko dituzten heinean. Belaunaldi-ordezkapen horren eragina 25 eta 39 urte arteko emakumezkoen bilakaeran ikusten da, ugalkortasun osoaren ia ehuneko 85 adin horretan biltzen dela kontuan hartuta, ehuneko 40 inguru murriztuko

da, 2013. urteko 225.000 emakumezkoetatik 2026ko 139.000 emakumezkoetara. Jaiotza-datan eragin handia izango du, izan ere, epealdiaren amaieran jaiotzen kopurua urteko 15 mila ingurukoa izango da, hau da, iragan mendeko laurogeita hamarrekoko hamarkadako gutxieneko historikoetatik behera, ugalkortasuna 2026rako aurreikusita baino %38 txikiagoa zenean, izandako mailaren parekoa Gainera, ugariak ez diren belaunaldiak ugaltzeko adinera iristeak izango duen eragina proiektzioak barnean hartzen duen epealditik harago doa. Horren ondorioz, ez da aurreikusten jaiotza-tasak nabarmen gora egingo duenik, ezta epe luzeagoan ere.


2.2 grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren hazkundearen osagaien garapena eta proiektzioa. 1988-2025.



Lurralde historikoetako hazkundearen osagaien bilakaera, migrazio-saldoari dagokionez EAE osorako deskribatutakoaren antzekoa bada ere, diferentzia esanguratsu batzuk dauzka hazkunde naturalari dagokionez (2.3 grafikoa). 2013-2025 epealdi osoan, Araba izango da hazkunde naturalarengatik biztanleria galduko ez duen lurralde bakarra, eta saldo positiboak mantenduko ditu 2019. urtera arte. Aldiz, bilakaerarik txarrena Bizkaian gertatuko da: urte guztietan saldo negatiboak izango dira, eta jaiotzen eta heriotzen arteko diferentziaren ondorioz 38.000 biztanle galduko dira. Gipuzkoan hazkunde naturala positibo samarra izango da epe laburrean, baina epealdi osoan ia 13.000 pertsona galduko ditu. Migrazio-osagaiari dagokionez, beren zeinuak eta mailak lurralde aldetik diferentzia txikiagoak izango dituzte, eta saldorik

negatiboenak epealdiaren erdiko urteetan gertatuko dira. 2013 eta 2025 artean, etorkinen eta emigranteen arteko diferentzian 7.000 pertsona inguru galduko dira Araban, 36.000 baino gehixeago Bizkaian eta 18.000 Gipuzkoan.

2.3 grafikoa: Lurralde Historikoetako biztanleriaren hazkundearen osagaiak.




2.2 Egitura demografikoaren eraldaketak

Biztanleriaren beherakadarekin batera, eraldaketa garrantzitsuak gertatuko dira biztanleriaren adin-egituran, 2013ko eta 2026ko piramideen arteko konparaketatik ondorioztatzen den bezala (2.4 grafikoa). Eraldaketa horiek hainbat faktoreren ondorioa izango dira. Alde batetik, biztanleria-egituren ezaugarri den inertzia indartsuaren ondorioa, zenbakizko diferentzial handiko kohorteen piramidearen profilaren eraginez sorturiko joan-etorriarekin; eta bestetik, fenomeno demografikoen eta horiek adin-egituren gainean daukaten loturaren gainean aurreikusitako garapenaren ondorioa. Gaur egun adin helduetan dauden belaunaldi ugariak adin heldu-nagusietara igaroko dira eta, aldi berean, kopuru txikiagoko kohorteen ordezkatzeko dituzte horiek. Belaunaldi-ordezkapen horren eta migrazio-saldoaren ikurra alderantzizkatzearen ondorioz, 2013 eta 2026 artean 35 eta 49 urte bitarteko biztanleen kopurua ehuneko 36 murriztuko da, eta 50 eta 64 urte bitarteko biztanleen kopurua, aldiz, ehuneko 9 handituko da. Biztanleriaren hazkundera oso nabarmena izango da piramidearen erpinean, belaunaldi ugariagoak iristearren eta biztanleriaren biziraupenean aurreikusita dauden hobekuntzen eraginez. Azkenik, piramidearen oinarriaren uzkurdura nabarmena gertatuko da, ugalkortasun-adinean dauden emakumeen kopuru txikiagoaren ondorioz jaiotza-tasek beherakada handia izango dutelako.

Piramidearen zahartze hori biztanleriaren batez besteko adinaren bilakaeran sintetizatu ahal da. Proiektatutako epealdian, batez besteko adinak gora egingo du ia

3,5 urte, 2013ko 44 urteetatik 2026ko 47,5 urteetara. Aldi berean, adin ertaina, 2013an 43,2 urte zena, 6,2 urte luzatuko da; beraz, proiektzioaren epemugan, euskal biztanleriaren ia erdiak 50 urte edo gehiago izango ditu.

2.4 grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren piramideak. 2013 eta 2026.



Oharra: eremu gorriak 2013ko piramidea adierazten du, eremu urdinak gehi grisak 2026ko piramidea. Beraz, eremu gorriak 2026an 2013. urtearekin alderatuta izango duen kopuruaren defizita adierazten du eta urdinak, berriz, superabita.

Adin-talde handiek izango duten bilakaerari dagokionez, 16 urtetik beherako biztanleriak apur bat gora egingo du epe laburrean: 324.000 pertsona ingurura helduko dira 2015. eta 2016. urteetan, eta gerora argi eta garbi beheranzko joera izango du (2.3 taula). 2026. urtean, adin-talde horretako biztanleak 287.000 izango dira. Horrenbestez, 32.000 haur eta gazte gutxiago izango dira 2013arekin alderatuta. Kopuru hori handiagoa izango da azken hamarkadetan izandako gutxienekoak baino (265 mila pertsona inguru mende honen hasieran), baina iragan mendeko hirurogeita hamarrek hamarkadaren bigarren bosturtekoan EAEn bizi zen 16 urtetik beherako biztanleriaren erdia baino gutxiago da. Bestalde, lanerako adinean dagoen biztanleriari, hau da, 16 eta 64 urte artekoari, dagokionez, beherakada iraunkorra izango du epealdi osoan, eta proiektzioaren epemugan 180.000 pertsona baino

gehiagoko galera izango du, hau da, 2013an baino ehuneko 13 gutxiago. Lanerako adinean dagoen biztanleriak iragan mendearen amaieran gorantz egin zuen, eta mende honen lehenengo hamarkadan biztanleria hori egonkortu zen; proiektzioan azaldu den joerak hautsi egiten du bilakaera hori, eta horrenbestez, proiektzioaren epemugan aurreikusi da hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean zeudenen antzeko kopuruetaraino jaitsiko dela. Azkenik, 65 urte eta gehiagoko biztanleriak hazteko joera eutsia mantenduko du eta 440.000 pertsonatik 551.000 igaroko da 2013. eta 2026. urteen artean, hau da, adineko biztanleriak eguneko 25ko gorakada izango du.

2.3 taula: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren proiektzioa adin-talde handien arabera. 2013-2026. (milakotan)

	0-15	16-64	65+	Guztira
2013	319,1	1.419,7	440,1	2.178,9
2014	321,8	1.404,1	449,9	2.175,8
2015	323,8	1.387,7	458,4	2.169,9
2016	323,9	1.371,5	465,7	2.161,1
2017	323,2	1.356,6	472,1	2.151,9
2018	321,8	1.341,0	479,8	2.142,6
2019	319,6	1.326,3	487,3	2.133,2
2020	316,1	1.313,3	494,5	2.123,9
2021	311,9	1.300,5	502,3	2.114,8
2022	307,6	1.287,5	511,0	2.106,0
2023	303,0	1.274,0	520,7	2.097,7
2024	297,8	1.261,7	530,6	2.090,1
2025	292,1	1.250,0	541,2	2.083,2
2026	286,9	1.239,0	551,4	2.077,3

Oharra: urtarilaren 1eko biztanleriak.

Lurralde Historikoetan adin-talde handiek izango duten bilakaerak, EAE osorako deskribatutakoaren antzekoa bada ere, berezitasunak ditu jatorriko egitura demografikoei eta fenomeno demografikoen etorkizuneko garapenari dagokienez (2.4 taula). Arabak izango du gutxien zaharturiko egitura demografikoa, eta lurralde horretan soilik egingo du gora haurren biztanleriaren pisu erlatiboak; Bestalde, Bizkaiak izango du egiturarik zahartuena, gaur egun gertatzen den moduan.

2.4 taula: Lurralde Historikoetako biztanleria, adin-talde handien arabera. 2013 eta 2026.

Araba	Biztanleria milakotan		Aldakuntza		Banaketa erlatiboa	
	2013	2026	Osoa	Erlatiboa	2013	2026
0-15	48,5	47,2	-1,2	-%2,6	%15,1	%15,0
16-64	212,5	187,6	-24,9	-%11,7	%66,4	%59,7
65+	57,8	79,4	20,1	%33,9	%18,5	%25,3
Guztira	320,3	314,2	-6,0	-%1,9	%100,0	%100,0


Bizkaia	Biztanleria milakotan		Aldakuntza		Banaketa erlatiboa	
	2013	2026	Osoa	Erlatiboa	2013	2026
0-15	161,0	143,5	-17,5	-%10,9	%14,0	%13,2
16-64	751,5	648,8	-102,7	-%13,7	%65,3	%59,7
65+	238,3	294,0	55,4	%23,4	%20,7	%27,1
Guztira	1.150,8	1.086,3	-64,5	-%5,6	%100,0	%100,0

Gipuzkoa	Biztanleria milakotan		Aldakuntza		Banaketa erlatiboa	
	2013	2026	Osoa	Erlatiboa	2013	2026
0-15	109,7	96,2	-13,5	-%12,3	%15,5	%14,2
16-64	455,7	402,6	-53,2	-%11,7	%64,4	%59,5
65+	142,5	178,0	35,5	%24,9	%20,1	%26,3
Guztira	707,9	676,6	-31,1	-%4,4	%100,0	%100,0

Oharra: urtarilaren 1eko biztanleriak.

Hezkuntza-sistema izan da azken hamarkadetako dinamika demografikoan aldaketa gehien izan dituen esparruetako bat. (2.5 grafikoa). Eskolako adinean dagoen biztanleria osoak beheranzko joera dauka epe ertainean. Dena dela, noranzkoak eta erritmoak diferenteak izango dira hezkuntza-ziklo batzuetan eta besteetan, jaiotzaren gorabeherak denboran geroratuta eragina daukaten heinean. Haur hezkuntzan eskolatutako biztanleria gutxitzatu egingo da epe laburrean, astiro hasieran, eta azkarrago gerora. 2026an, 0 eta 2 urte bitarteko biztanleak 45.000 baino gehixeago izango dira; kopuru hori, laurogeita hamargarren hamarkadaren erdialdean izandako gutxienekoaren antzekoa da. Haur hezkuntzan eskolatutako biztanleriak antzeko bidea egingo du nahiz eta denborari dagokionez bereizita egongo den, epe laburrean biztanleria horrek oraindik mantentzea egingo duelako apur bat. Lehen hezkuntzako zikloan 2018an gehieneko kopurura iritsiko da, ia 127.000 haur; eta ondoren, atzeraldi iraunkorra hasiko da, adin horietara ugariak ez diren kohortek iritsiko direlako. Azkenik, derrigorrezko bigarren hezkuntzan egoteko adinean dagoen biztanleriak goranzko joera izango du; zerbait gehiago 84.000 pertsona izango dira 2024an, 2013an baino ehuneko 20 gehiago, baina epe luzeagoan, biztanleria horren joera beheranzkoa izango da.


2.5 grafikoa: Biztanleriaren bilakaera eta proiektzioa hezkuntza-zikloetan. 1976-2026.



Oharra: urtarilaren 1eko biztanleriak.

Etorkizuneko dinamika demografikoak lan-merkatuan ondorio garrantzitsuak izango ditu (2.6 grafikoa). 16 eta 64 urte arteko pertsonen kopuruaren murrizketa arina da, proiektzioaren epemugan 1,24 milioi baino gutxiago izango dira. Kopuru hori murrizten den aldi berean, talde horren barneko egitura zahartuko da, laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran hasitako joera luzatuz. Prozesu horren oinarrian jaiotza-tasa handiko epealdietan jaiotako belaunaldi ugariak adin heldu-nagusietara igarotzean eta gero eta kohorte urriagoek horiek ordezkatzeko joatean datza. Hala, laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdera arte, lanerako adinean zegoen biztanleriaren ehuneko 45 inguruk 35 urte baino gutxiago zituen eta horien parte-hartzea ehuneko 31ra murriztu zen 2013an. Proiektatutako epealdiaren amaieran, eta pertsona gazteenen pisuaren errekuperazio arina gertatuko bada ere, aktiboa izan daitekeen biztanleriaren ehuneko 29k soilik izango du 35 urtetik gorako adina. Aldiz, 55 urtetik gorakoen pisuak ia 6 ehuneko-puntu hazkundera izango du eta 2013ko ehuneko 19,8ko kopurutik 2026ko ehuneko 25,6ko kopurura igaroko da.

2.6 grafikoa: 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren eta haren barneko egituraren garapena eta proiektzioa. 1976-2026.




Oharra: urtarilaren 1eko biztanleriak.

Analisi dinamikoak, lanerako lehen adinean sarturiko kohorteetako pertsonen (16 eta 24 urte artekoa) eta adin hori izateari uzten dioten (58-66 urte artekoa) garapena alderatuta, adierazten du lan-merkatuarekiko presio demografiko txikiagorako joera mantenduko dela. 2004. urtetik aurrera, eta adierazitako definizioan oinarrituta, aktiboa izan daitekeen biztanleriaren ordezkapen-indizea unitatetik beherakoa da, hau da, irteeren kopuruak sarreraren kopurua gainditu du, eta, aldiz, hirurogeita hamarrek hamarkadaren bigarren erdian enpleguaren gainean egiten zuen presioa handia zen, sarrerek irteerak halako bi baitziren orduan. Datozen urteetan indize horrek murrizten jarraituko du; 2019. urtean, 100 irteerako 61 sarrera izango dira, eta proiektzioaren epemugan errekupeazio txikia egongo da, 64 sarrerara arte.

Adineko biztanleak, 65 urte eta gehiagokoak, datozen hamabost urteetan 111.000 pertsona gehiago izango dira; biztanleria osoan daukaten garrantzi erlatiboak ehuneko 20,2tik 26,5ra egingo du gora. Aldi beran, bere barneko egituraren “gain-zahartzea” areagotuko da. 2013 eta 2026 bitartean, 65 eta 74 urte bitarteko biztanleriak ehuneko 26ko hazkundea izango du, 75 eta 84 urte bitarteko biztanleriak, besteak beste, ehuneko 15ekoa, 85 eta 94 urtetik bitartekoak ehuneko 46koa eta 95 urtetik gorakoak hirukoiztu egingo dira. Funtsezko joera horrekin batera, adineko biztanleria osatzen duten adin-talde batzuen eta besteen bilakaera modulatu egingo da Gerra Zibilean eta ondorengo gerraostean jaiotako kohorteak igarotzen diren heinean (2.7 grafikoa). Faktore hori ikusten da 75 eta 84 urte bitarteko biztanleriaren bilakaeran: epe

laburrean murriztuko da, adin horietan kohorte gero eta urriagoak egingo direlako, eta gerora hazi egingo da epe ertainean. Adineko biztanleriaren etorkizuneko bilakaeraren beste ezaugarri bat da sexuen arteko desoreka apur bat murriztuko dela, baina biztanleriarik zaharrenaren “feminizazio” handiak bere horretan jarraituko du. 2013 eta 2026 bitartean, 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren feminitate-neurriak behera egingo du, 100 gizoneko 139 emakumetik 133ra; 85 urte eta gehiagoko biztanlerian, aldiz, erlazio horrek 100 gizoneko 244 emakumetik 200era egingo du behera.

2.7 grafikoa: Pertsona nagusien kopuruaren bilakaera eta proiektzioa adin-segmentuen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa 1976-2026.



Oharra: urtarilaren 1eko biztanleriak.

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



Eustat

EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA

www.eustat.es